



BARREN

TOKIKOM



Paralinpiar Jokoetan berriemaile

BIZI BARATZEA

Jakoba Errekondo ren hitzaldia

Baratzari, lorategiari,
etxe barruko landareei, fruta-arbolei,
edo basoari lotutako galderei eta
zalantzei erantzuteko hitzaldia.

Irailak 28, asteazkena - 18:00
Kultur Etxeko hitzaldi-gela



ELGOIBARRO IZARRA
Bazterreko Udala



ELGOIBARRO UDALA

*erabili
euskerara
utiliza el euskera*

LANEAN
IKASKETETAN
SARE SOZIALETAN
EROSKETETAN
KIROLA EGITEAN
FAMILIAN
LAGUN ARTEAN
JAIETAN
AISIALDIAN

**CURSO
16/17
IKASTURTEA
UDAL
EUSKALTEGIAK**
euskaraz klaseak • clases de euskera

16-17 IKASTURTEA

Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza Internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkataria eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
- EGA

16 urtetik gorakoentzat

Matrikulaldia: Irailaren 28ra arte

Langabetu, ikasle eta gurasoek,
Matrikula Erdia

Ikastaro amaleran BEKAK denentzat.
(Baldintzak betez gero)

Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

ELGOIBAR: 09:00 – 13:00 / 15:30 – 19:30

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Kalebarren plaza, 2 – Tel.: 943 742 731



NORA HADI



“Iraila inoiz ez dator isilik, beti dator zurrumurruka”

Ai, Garazi! Konturatu orduko bukatu zaigu udako oporraldia, eta horrekin batera txiringitoko zuritoak, hondartzan kontenplaturako ilunabarrak, koadrilako tertuliak gaueko ordu txikiak arte, udako amodio, minigona eta sandaliak... Iritsi zaigu berriro iraila. Eta iraila inoiz ez dator isilik, beti dator zurrumurruka: ea non gelditu diren urtarrilean gure buruari ezarritako pautak, non gimnasioan egingo genituen ariketak, non eguneroko entsaladak, non, non, non... Eta bai, eskutik emanda doazen betebeharrak dira dieta eta ariketa fisikoa. Baina non daude gure buruari eskaini beharreko orduak? Zein orrialdetan ditugu apuntatuta? Urtarrileko zerrendan lehenengo postua atxikitu nion irakurketari, eta halaxe hasi dut hilabetea, irakurketa berreskuratzeko asmoz, pertsonak bonbillak garela dioen liburu berezi bati engantxatuta. Laburbildu egingo dizut, Garazi: pertsona guztiak hankadun bonbillak gara: sentsazioak, emozioak, sentimenduak... transmititzen ditugulako. Badaude 30.000 wattera doazen pertsonak, eta badaude erreta doazen bonbilak ere.

Kasu batzuetan, pertsona bat ezagutu eta hirugarren segunduan, *uau!* pentsatzen omen dugu. Aldiz, beste batzuetan, *uff!* Ez dakigu nola definitu. Ez da arroparengatik edo aurpegiarengatik, ezta ahotsarengatik ere, ezetz? Denok gaude 0 eta 30.000 bitarte horretan, baina 30.000 wattera doazenak ditugu atsegin, ezta Garazi? Umorea igortzen dutenak, baikortasuna, zintotasuna, gardentasuna... Badakit. Gure inguruak ez du laguntzen energiak beteta egotera. Arrazoi duzue aitzakia horrekin, bizitza ez da erraza. Erraza bonbilla itzaltzen uztea da. Eta horrela erre zaizkigu milaka bonbilla, milaka lagun, familia eta maitale.

Baina aizu, pertsona bakoitzak transmititzen duenaren araberrako bizitza dauka eta, beraz, norbera da hartzen dituen jarreraren arduradun. Eskaini diezaiegun tarte bat urtarrileko zurrumurrei, momentu ona baita igortzen ditugun wattak biderkatzeko. Eta inork ez dezala utzi biharko, has zaitezte gaur! Eta guk ere ez dezagun utzi gerorako Garazi, has gaitezen orain!!!



GARAZI AYESTA



“Irailari badiot nik txoko berezi bat gordea nire barruan”

Ez zaizu arrazoirik falta, Nora. Irailaz hitz egiten etorri zara gaur, nigana. Egia esaten badizut, irailari badiot nik txoko berezi bat gordea nire barruan. Irailean, sekula baino gutxiago ezagutzen dut nire burua askotan, eta inoiz baino niagoa izaten naiz bes-tetan. Benetan diotsut, Nora, irailak badu zerbait harrapatzen nauena. Dietista batek esan zidan behin, iraila gorputz askorentzat bosgarren urtaroa izan ohi dela. Konprobatuta omen dago hainbat ikerketatan eta datutan eta zenbakitan eta aditutan eta inkestatan, iraila inflexio puntu bat izaten dela pertsona askorentzat. Edo atzera, edo aurrera. Zeuk ere esan duzu bai, bonbilla horien adibidea jarrita. Edo piztu, edo erre. Batzuetan, uste dut deseroso sentitzen garela irailtan. Autokuestionatzen, autokritikatzen, autozentsuratzen, auto dena. Inertziatik ateratzen gara eta horrek akonjatu egiten gaitu. Barkaidazu hitza, baina uste dut hori dela adierazteko modurik egokiena. Ze, nik behintzat, irailan askotan beldurra pasatzen dut. Beldurra klaseak hasteari, beldurra gimnasioan apuntatzeari, beldurra distantziari, beldurra gertutasunari, beldurra proiektu berriei, beldurra zuri, beldurra ezjakintasunari, gehiegizko ezagutzari, beldurra bi-zitzei. Estutzen zaizkit hesteak eta korapilatzen zaizkit ideia guztiak barruan. Eta izerditan hasten naiz. Baina, badakizu zer, Nora? Uste dut seinale ona dela hori. Uste dut piztuta dauden bonbillen seinalea izan daitekeela hori. Facebookeko eta Instagrameko argazki eder eta inbidia emateko eskegitako horietako askotan irakurri izan dut esaldi hau, eta kontxo, arrazoirik ez zaio falta: bizitza, zure konfort gunetik kanpo hasten da. Eta, nire ustez, iraila horixe izan ohi da gehienetan, konfort gunetik ateratzea.

Ez dizut gezurrik esango, asko eskertzen dut urria, azaroa, abendua eta urteak berriro martxa hartzen dueneko garaia ere; errutinaren morroia naiz ni, eta gozatu egiten dut gainera errepikapen ziklo horrekin. Baina, ai, Nora, zer izango ginatke ba barearen aurreko ekaitz hori gabe? Zer irailik gabe? Ba, ondo esan duzun moduan, erretako, kiskalitako, hildako moskitoz betetako bonbilla itzaliak. Grisak. Eta guk, Nora, koloretako bizitza dugu nahiago. Ezta?



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa

Nerabe, zer?

1. Gorputza: gorputza azkar aldatzen da eta honekin inguruko begiradak, gure sentipenak etab. Prozesu konplexua da, identitate krisia sorrarazten duena.

2. Gurasoak: haurrak garenean gurasoak heroizat ditugu, erantzun guztiak dituzte, badakite zer egin eta zer esan momentu guztietan. Baina nerabezaroan sartzean gurasoen kontraesanak ikusgai egiten dira, eta sarritan amorrua sortzen da gizaki hutsak direlako eta ez heroi suntsiezinak. Garapen prozesuan beharrezkoa da haustura hau, garai honetan frustrazio adierazpenak, ixiltasunak eta distantzia osasuntsuak dira.

3. Identitatea: norbere ardurak hartu, erlazioak sortu eta zaintzen ikasteko unea da, nor izan nahi dugun erabakitzea azken finean. Denboraren kudeaketan be-

hatu dezakegu hau; norbere mugen kontzientzia badugu kalkulatu ahalko dugun ikasteko eta lanak egiteko behar dugun denbora, baina gure identitate infantilean jarraitu nahi badugu denboraren mugen gaindi gaudela pentsatuz eta gure ekin-tzek ondoriorik ez balute bezala jokatuz, autonomiarako prozesua luzatu nahian gabiltzan seinale da.

Prozesu honetan guztian funtsezkoa da inguruko helduen jarrera; familia eta gizartea. Gazte parte-hartzaileak eta zentzudunak nahi baditugu bidelagun izan behar gaituzte. Kontziente bagara aldaketa prozesu konplexu batean barneratuak gaudela, ulergarria da frustrazioa, tentsioa, elkar ulertu ezina eta emozio korapilatsuak. Gatazkaren lagun egin behar gara, hazkuntzarako gatazka baita.

Mende erdi batean pasa gara nerabezaroa hazkuntza errito simple batekin gaingidituztat ematek 20 urteko prozesu bihurtzera. Itxuraz asko aldatu da gizartea baina kontraesanez beteak gaude; 16 urterekin alkohola kalean edaten badu isuna gurasoentzat da, baina banantze batean erabaki dezake norekin bizi. Nerabezaroan hiru dolu garrantzitsu gaingiditu behar dira:

“Gazte parte-hartzaileak eta zentzudunak nahi baditugu bidelagun izan behar gaituzte”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Legeburuaren Argitalaritza

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak atalean adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainhoa Andonegi **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Taupadak eta Elgoibar 1936 elkar-teak antolatutako errekonstrukzioa bizitzeko aukera izan zuen pasa den asteburuan Elgoibarko herriak. Gerturatu zen jendeak, uste dugu, bere azalean bizi izan zuela ez 1936an gertatutakoa, baina bai oso gertuko sentazio biolentoa. Ez zen antzerki bat izan, ez zen irrealia izan, Elgoibarren eta Euskal Herriko herri guztietan gertatutakoaren errekonstrukzioa izan zen.

Hau egiazki pasatu zen, hemen herritarrak egiazki fusilatu zituzten, jendea espetxeratu, isilarazi, euskara gure hizkuntza debekatua izan zen, herritarrei benetan kendu zizkieten etxeak eta terrenoak, Elgoibarko mendietan daude gudari eta mi-

liziano asko ahaztuta oraindik, izugarritzko beldurra ezarri zioten herri honi; gaurdaino darraien beldurra kasu askotan.

Asteburuko ekintza, ez zen denbora pasa bat izan, memoria ekintza bat izan zen, ezin dugulako ahaztu, ez zela Guda Zibil bat izan. Estatu Kolpe faxista bat izan zen. Memoriaren lanean, gauza asko ditugu egiteko Elgoibarren: hor dugu Pedro Mugurutz eta etorbidea, Valle de los Caídos-en arkitektoa zena, Falangista eta Francoren arkitektoa. Baditugu Falangisten ikurak Elgoibarren, Francok Elgoibarko seme kuttun izaten jarraitzen du, baditugu gudariak eta milizianoak mendietan...

Hau guztia jasan zutenek ez dute, ez erreparazio, ez justizia ezta errekonozizi-

mendurik jaso. Eskerrik asko bihotzez, eta ez dezagun ahaztu gertatutakoa.

Gure eskerrik beroena modu batean edo bestean lagundu ziguten guztiei: Harategiak: Sahatzu, Ziarda, Patxi Iraola, Armueta. Ogia: Larre, Ibarrenea, Arkupe. Edariak: Julito Bueno, Ibartxiki, Beristain. Iñaki Garro, On Benantzio, Kimetz, tabernariak, dendariak, Baltasar, Eburne Bilbao, Zuazubizkar familia, Ibarrenea familia, Ibar-Txiki baserria, Armas Izarra, Iñaki (Garaiko Kotxea), Txomin eta Alex (Sidecar), Prest Taldea, Elgoibarko Udala, Elgoibarko Azoka, Gipuzkoako Foru Al-dundia, Elgetako Udala, Alberto Bergara eta zuen etxeko ateak zabaldu dizkiguzuen guztiei.

Taupada eta Elgoibar 1936 Talde Eragilea

HEMEN eta ORAIN DENON HERRIA



Maddalen Iriarte
Gipuzkoa

Arnaldo Otegi
Lehendakari galea

Jasone Agirre
Bizkaia

Miren Larrion
Araba

BOZKATU
ehbildu

Legelbitzarrerako hauteskunde kanpainako ekitaldiak egin dituzte alderdi politikoek

Domekan izango dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, eta alderdi politikoak euren kanpainako ekitaldiak egin dituzte azken egunetan Elgoibarren. Gaurko ere antolatu dituzte hainbat ekitaldi: 18:00etan Podemos Elgoibarrek informazio mahia jarriko du Kalegoen plazan, eta EH Bilduk piketeo-tertulia antolatu du gaur gauerako. Joan Tarda (ERC) eta David Fernandez (Ezkerria Independista) izango dira hizlariak, eta Ion Telleria Naizeko kazetariak gidatuko du saioa. 21:30ean izango da, Usuan. Bihar erreflexiorako eguna izango da, eta domekan botoa eman beharko da. 9:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik hauteslekuak. Domekako botoarekin Eusko Legebiltzarrerako hautagaiak aukeratuko dira, eta hautagai horien artean, hainbat elgoibartar eta mendaroar daude: EAJ alderditik zerrendan bosgarren lekuan dago Irune Berasaluze, hamargarrena da Maialen Gurrutxaga eta 22. lekuan Ane Beitia. **www.BAREN.eus** webgunean emango ditugu Elgoibar eta Mendaroko emaitzak, domeka gauean.

EH Bildu

EH Bilduk domekan egin zuen Kalegoen plazan bere saioa. Txalaparta hotsekin hasi zen ekitaldia eta koplak doinuek jarraitu zuten. Ondoren, hitzek hartu zuten lekua. Hainbat kazetariren, idazleren, unibertsitate irakasleren... esanak irakurri zituzten zenbait elgoibartarrek eta une berean hizkiak ipini zituzten pankarta batean *Egin herri irri* esaldia osatuz. Ondoren, EH Bilduko ordezkariak hartu zuten hitza. Marian Beitialarrangoitia eta Aitzol Cajaravi-



llek berba egin zuten lehenengo eta Arnaldo Otegi gero. Ekitaldiaren amaiera Gabi Agirregomezkortak eta Alfonso Guillok kantuz jantzi zuten.

EAJ-PNV

Gipuzkoako EAJ-PNVko hautagaizako hainbat kide Elgoibarren elkartu zen martitzenean. Ekitaldian Arantza Tapiak hartu zuen parte, eta Makina Erreminta izan zuen hizpide. Arantza Tapia eta EAJko Elgoibarko ordezkariak, Ane Beitia alkatea buru, herriko kaleetan ibili ziren informazioa banatu eta EAJrentzako botoak eskatzen. Era berean, Markel Olano Gipuzkoako Aldun Nagusiak Alcorta Forging Group enpresa bisitatu zuen joan zen astean, eta



bertatik bertara ezagutu zuen enpresa hau langileen parte hartzean eta nazioartekotzean egiten ari den ahalegina.

PSE-EE

PSE-EE alderdiko kideak azken bi egunetan etorri dira Elgoibarrera. Ostegunetako azoka txikia aprobetxatuta, herritarrei larrosak banatu zizkieten, eta Kalebarren plaza inguruan ibili ziren sozialistak elgoibartarrei botoak eskatzen. Horrez gain Idoia Mendia lehendakariak Erreminta Makinaren Institutua bisitatu zuen eguaztenean. Lanbide Heziketa eta enplegua sustatu nahi dituzte besteak



beste sozialistek, eta alor horretan IMH erreferentia dela aipatu zuen Mendiak.

Zirardamendin hildako gudariak omendu zituzten joan zen domekan



Elgoibarko Zirardamendi-Aiastia fronte-lerroan 1936ko irailean eta urrian hildako gudariak omendu zituzten urtero legez iraileko azken aurreko domekan. Senide, instituzio, elkarte, kultur erakunde eta alderdi politikoetako zenbait ordezkari hartu zuten parte ekitaldian, eta, besteak beste, Elgoibarko alkate Ane Beitiak eta gainerako ordezkariak loreak jarri zituzten, gudariaren omenez 1952. urte inguruan han kokatu zuten gurutzean. 1936ko irailaren 25ean Arana Goiri batailoiko hamalau euskal gudari hil zituzten. Omenaldi honekin, euskal soldadu gazte hauen sakrifizioa gogorarazi nahi dela azaldu dute sustatzaileek, eta memoria historikoa "funtsezko bidea" dela azpimarratu dute elkarbizitza eta adiskidetzeari bultzatzeko.

Elgoibarko Izarrak jarriko du txosna bihar, hileko azken zapatuko ferian



Hileko azken zapatuko feria antolatu dute Udalak eta Debemenek biharko, eta oraingo honetan Elgoibarko Izarrak jarriko du txosna. 11:00etatik aurrera, baserriko oilasko brotxeta eta txorizo egosi pintxoak salduko dituzte. Horrez gain, Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera egongo da goizez, eta eguerdiik aurrera ganadu erakusketa egingo dute Aita Agirre plazan. 12:00etan Kale Kantariak irtengo dira kantuan. Ordu berean, umeentzako pizza tailerra hasiko da Kalebarren plazan.

Gazte eta helduentzako plazako dantzen ikastaroa

Haritz Euskal Dantzari taldeak plazako dantzen ikastaroa antolatu du gazte eta helduentzako. Fandangoa, arin-arina, jauziak, balsa eta pasodoblea erakutsiko dituzte, besteak beste. Bi talde egingo dituzte; hasiberrientzako bata, eta lehen noizbait ikastaroa egin dutenentzat bestea. Izenematea musika eskolan egin behar da, irailaren 30a baino lehen. Ikastaroa urriaren 3tik abenduaren 22ra izango da, astean bi egunetan. 40 euro balio ditu ikastaroak.

Autoestimua feminista eta jabeakuntza tailerra

Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak autoestimua feminista eta jabeakuntza tailerra antolatu du urri eta azarorako, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Tailerra irailaren 28, urriaren 5, 19, 26 eta azararen 2, 9 eta 16an garatuko da (asteazkenetan, 18:30etik 20:30era). Iraupenari dagokionez, guztira 14 ordu izango dira eta gaztelaraz eskainiko da. Saioak Loredi Salegik emango ditu. Izenematea doakoa da, baina plaza mugatuak izango dira. interesatuek Arreta Bulegora hurbildu, edota berdintasuna@elgoibar.eus eta 943 741 050 telefonoaren bitartez eman dezakete izena.

Asteburuan emango diote segida Sanlobeer feriarri

Atzo zabaldu zuten Sanlobeer garagardo feria, eta asteburuan jarraituko du festak Maalako parkean. Gaur 18:30etik aurrera pintxopotea egingo dute, eta 22:30ean The Romanticos taldeak kontzertua eskainiko du. Bihar, aldiz, eguerdian zabalduko dute karpa, eta muskuiluak eskainiko dituzte pintxopotean. Gauean, bingo solidarioa egingo dute. Urtero bezala, ukondoa, saltxitxak, patata purea, oilaskoa eta patata frijituak eskainiko dituzte. Domekan, aldiz, paella jana egingo dute.



Argazki guztiak ikusteko: www.barren.eus

► Gerrari begira

Joan den barixakuan eta zapatuan Elgoibarko kaleek 1936ra egin zuten salto gerran tropak herrira sartu zirenekoa errekreatu nahian eta talde eragilearen esanetan, helburu hori bete zuten. "Gure erronka zen sinesgarritasuna ematea, jendea inplikatzeko eta herritarrei orain dela 80 urte pasatako hura biziaraztea. Era berean hori zen zailena eta bete dugunez, oso-oso gustura gaude. Gainera, jendeak ikusi zuen ez zela antzerkia, errekreazioa beste gauza bat dela eta beraiek bizi izan zutela benetan izan balitz bezala". Umeak garai hartako jolasetan, tropak kalean, jendea portaletatik ihesean... hori guztia dokumental batean jasoko dute eta gerora ere dena gogoan gordetzeko. Bestalde, egitasmo honen baitan ikusgai izango da Kultur Etxean *Legion Condor alemana Euskal Herriko bonbardaketetan* erakusketa urriaren 1era arte.







barena 11, EIBAR

garajesGarcía.com

KUPOI HONEKIN

%10ko
deskontua
filtroetan



www.garajesgarcia.com
g.garcia@garajesgarcia.com

Inkubaketak: 943 820 697

Lantegiak: 943 202 214

943 127 271

14.500€



FORD GRAND C-MAX 20 TDCI TITANIUM

Motorea: 2.0 cm3 16cl Diesel

Kilometroak: 80.000

Egerra: erabiltza

4.000€



BMW SERIE 4 420d

Motorea: 2.5 cm3 D diesel

Kilometroak: 356.000

Egerra: erabiltza

25.500 €



HONDA CRV ELEGANCE 2.2 i-CTDI

Motorea: 2.2 cm3 i-CTDI Diesel

Kilometroak: 100.000

Egerra: erabiltza

6.500€



RENAULT CLIO BUSINESS 1.5 DCI 70 ECO 2

Motorea: 1.5 cm3 DCI Diesel

Kilometroak: 106.000

Egerra: erabiltza

11.500€



CITROEN DS 3LA Vis Special Edition 120

Motorea: 1.6 cm3 VTI Gasolina

Kilometroak: 115.000

Egerra: erabiltza

13.500€



AUDI A4 TDI 2.0 DPF 143

Motorea: 2.0 cm3 TDI Diesel

Kilometroak: 80.000

Egerra: erabiltza

IKASTOLAN, DENOK GARA GU

2016an jaiotako haurren matrikulazio-aldia zabalik irailaren 19tik 30era,
azarotik otsailera bitartean hasiko diren haurrentzat.



elgoibar ikastola



www.elgoibarikastola.eus

943 744441

Ordutegi zabala: 7:30-19:30 / Jai-zubietan eta oporretan irekita



Osasun gida

Osasun gida

Osasun gida

Osasun gida

Osasun gida

Osasun gida

fisio&más

Fisioterapia aurreratu eta
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 607 963 628
www.fisio-mas.com

RPS 125/18



Garazi
Sampedro
Arando

RPS 169/15

ERROSARIO
HAGIN KLINIKA

Erosario, 7
Elgoibar
943 743 679



Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745



leku
eder
hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734



RPS233/13

Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 183/12
Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

“Paralinpiar Jokoetan kirolariak gertukoak izan dira gurekin”

► NEREA GURRUTXAGA ZUATZUBIZKAR BERRIEMAILEA

Gazteaukerak eta Basque Teamek lehia-keta bat antolatu zuten elkarlanean eta irabazleak Rio de Janeiroko Joko Olimpiko eta Paralinpiar Jokoetara joan dira EAEko kirolarien jarraipena blog bitartez egitera. Horietako bat izan da Nerea Gurrutxaga Zuatzubizkar elgoibartarra. Elgoibar eta Mendaroko kirolariekin egindako bideo batekin lortu zuen Riorako txartela. Elkarrizketa, albiste, argazki eta bideoen bidez euskal kirolarien jarraipena egiteaz gain, gertutik bizitakoa ere kontatu duteblogean: giroa, boluntarioak, segurtasuna, anekdotak, ikusitako lekuak... Paralinpiar Jokoetatik bueltan han bizi eta sentituta-koak azaldu dizkigu.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



◆ Zer izan da Rio de Janeiroko Paralinpiar Jokoak bertan bizi izatea?

Sekulako esperientzia. Nik ikus-entzuzko komunikazio ikasketak egin ditut eta kazetari lanak egitea zen nire asmoa: handik informatzea, kirolariekin bertatik bertara egotea... Nirekin joan ziren beste batzuen helburua kirol arloa zen batik bat. Nik ez nuen espero kirolaren lehiakortasuna horren gertutik bizi izatea, baina elitako kirolaren munduan sartu naiz. Han bizi izan dugunak denetik eman digu.

◆ Kirolari euskaldunak jarraitu dituzue batik bat.

Guk hiru kirolariren probak ikusi eta haiek elkarrizketatu ditugu eta guztira lau zeuden. Basque Teamekoak Amador Granados pistako txirrindularia; Asier Garcia saskibaloia jokalaria gorpildun aulkian; Iñigo Llopis igerilaria; eta Raquel Mateo triatleta ziren. Mateoren proba ezin izan genuen ikusi aldi berean beste bat ikusten ari ginelako eta gero elkarrizketa lotzerik ez genuen lortu. Lau horiez gain, kirolari

nafrarik eta iparraldekorik ere bazegoen, nahiz eta guk haien berri ez eman.

Boleibol, errugbi eta atletismo probak ere ikusi ditugu. Paralinpiar kirolak oso ezezagunak ziren niretzat. Esaterako, boleibola lurrian eserita arrastaka egiten dute eta ping-pongarekin jokatzeko ikusi ditugu. Horrelako irudiak bereziak dira benetan eta lortzen dituzten markak harrigarriak. Bestalde, badira kirol batzuk paralinpikoak bakarrik direnak, boccia, adibidez, petankaren antzerakoa.

◆ Zein emaitza lortu dituzte Basque Teameko kirolariak?

Amador Granadosen brontzezko domina eskuratu zuen eta guk kazetari akreditaziorik ez izan arren Euskal Kirol Egokituko Federazioko eta beste kontaktatu batzuen bidez lortu genuen bere familiakoekin haren zain egotea eta elkarrizketatzea. Asier Garcia zilarrezko domina, finala AEBen aurka jokatuta. Finalerdian ondoren egon ginen berarekin eta euforia sekulakoa zen. Iñigo Llopisek

ez du dominarik eskuratu, baina Espainiako errekorra gainditu du eta 17 urte baino ez dituenetik etorkizun ona iragarri dute berarentzat. Gainera, azken momentuan esan zioten Riora joango zela. Raquel Mateo kanporatu egin zuten parte hartu zuen proban, baina ez genuen ikusi. Denekin ez egon arren sekulako gertutasuna izan dugu kirolariekin.

◆ Gertutasun horrek bereziago egin al ditu zuretzat Paralinpiar Jokoak?

Bai, oso bereziak. Paralinpiar Jokoak izanik sumatu dugu kirolariak gertukoak izan direla, umilak eta asko baloratu dutela gertatzen ari zitzaiena. Publikoak ere hori baloratu du. Kirolariak beharbada ez daude ohituta horrelako harrerak jasotzera, jendeak berarekin argazkiak atera nahi izatera... hori polita izan da bai berarentzat eta baita guretzat ere. Guk askotariko ezintasunak zituztenak ikusi genituen, batik bat igeriketan, egoera go-gorrenak han zeuden-eta. Baziren uretara besotan sartzen zituztenak beren kabuz ez

zirelako horretarako gai, nahiz eta gero igerian primeran moldatu. Eskurik gabe eta hanka bakarrarekin igerian aritzen zirenak ikusita pentsatu nuen: *horiek maila honetan aritzeko gai badira, zein ez da kirola egiteko gai?*

◆ Ezintasunen arabera bereizten dituzte kirolariak?

Hala dirudi, baina ez dakit zehazki nola. Kirol batzuk ikusita badirudi ez dela justua ezintasun bat eta bestea parekatzea, baina gutxien uste denean ustez irabazi behar ez lukeenak irabazten du. Sorpresak hartu ditugu. Beso bakarrarekin igerian, esaterako, lehena iritsi zenik izan zen. Besorik izan ez arren, agian, pisua izan daiteke oinarritzkoa, auskalo.

◆ Olinpiar Jokoen ondoren jokatu eta kirolariak gertutasuna erakutsi arren Paralinpiar Jokoen toki gutxiago dute komunikabideetan, ezta?

Guk blogaren bitartez baino ez dugu eman hango berri eta igartzen da inondik inora ez dutela pisu bera medioetan eta ez diote hainbesteko garrantziarik eman. Gu han geundela irratirako elkarrizketa bat egin eta kirolari paralinpikoei buruz ez ziguten ezer ere galdetu. Interesa beste gauza batzuetan jarri zuten, eta beste kirolari bat izango balitz seguru asko galdetuko ligukete.

Komunikabideetan ez ezik oro har pisu gutxiago dute. Behin sarrerekin saskibaloia ikustera joan eta gure tokian beste batzuk zeuden eserita. Edozein tokitan jarri gintezkeela esan ziguten sarrera batzuk ez zeudelako zenbatuta. Olinpiar Jokoen Usain Bolt ikustera joan eta bakoitza nahi duen tokian jartzea seguru ez litzateke gertatuko. Hala ere, egin zen saiakerarik gobernutik umeei sarrerak eskolatan emateko eta ikusi genuen kirol asko ikusteko gradak beteta zeudela eta jendea dena ematen. Esaterako, atletismoan korrikalari brasildaritsu batek hartu zuen parte eta bera agertu zenean jendea bere izena oihuka hasi zen ia estadioa jausteraino. Gainera, irteera txar baten ondorioz kanporatu egin zuten eta berran haserretu ziren. Jendearentzat idolo bat da, publizitateetan ere agertzen da

koloretako antifaza jantzita. Hori ez genuen espero Paralinpiar Jokoen.

◆ Gizarteak askotan gutxiesten ditu ezintasunak dituztenak. Kirolariak horri buruz ezer esan dizute?

Guk kirolari buruz galdetu diegu ez berdintasunik egin gabe. Gainera, kirolerako duten gaitasun hori azalatu nahi izaten dute. Guk ez ditugu ezgaitu moduan ikusi, besteak beste gu baino azkarrago aritzen direlako askotan kirolean. Protesidun atletak, esaterako, sekulako kirolari gorputza daukate. Egun batean aldamenean protesidun atleta bat neukan eta lagunek pasatzen uzteko esan zidatenean begiratu hutsean ez nintzen konturatu zergatik, sekulako gorpuzkera baitzuen.

Hala ere, badago gutxiespenik horrelako kirolarienganako. Gainera, oso zaila da taldeak osatzea, dirulaguntzak ere askoz baxuagoak dira. Beraz, guri eskertu digute beraien jarduera ezagutzera emateko, egin dugun lana kirolariak ez ezik prestatzaileek, federaziokoek... Beraiek betidanik ari dira horrekin borrokan, baina apenas ezer jakin gabe kanpotik joan garenok pozik ikusteak beraiek ere emozioz bete ditu.

◆ Lanaz gain turismoa egiteko aukerarik izan al duzue?

Barra de Tijuca egon gara, parke

olimpikotik gertuen dagoen gunean. Parkea bera eta gure gunea oso ondo egokituta zeuden ezinduentzat, ez kirolariarentzat bakarrik baita ikusleentzat ere. Gu handik kirol gunera joan-etorrian ibili gara batik bat. Hala ere, turismo pixka bat egin dugu. Hondartza izan ginen baina esan ziguten ez zela oso seguru. Rio de Janeiroan Cristo del Corcovado eta Pan de azucar, itsaso ondoko mendia bisitatu genituen, ikusi dugun apurra polita. Brasildarrak oso irekiak eta alaiak dira, hori batik bat bolondresetan sumatu dugu. Bestalde, urrutitik izan arren, fabeletako egoera gogorraz eta pobreziaz jabetzeko moduan ere izan gara, besteak beste estadio olimpikoa fabela artean dagoelako.

◆ Esperientzia hau bizi ondoren jarraituko zenuke kirol kazetaritzan?

Egin dudana lana izan da, baina gustuko lana. Kazetari gisa elkarrizketa hauek egitea sekulakoa izan da eta horrelako kirolariari are gehiago, beraiek miresteraino iritsi bainaiz. ETBko albistegietako errealizazioan ere egon naiz praktiketan eta oso gustura aritu naiz. Beraz, kirolean zerbait sortuko balitz egingo nuke, baina ez dut uste dena kirol kazetaritzara bideratuko nukeenik, bestelako gaiak, egunerokotasuna asko gustatzen baitzait.



Nerea Gurrutxaga (eskuman) bere lankideekin eta Amador Granados txirindulariarekin, honek brontzeko domina eskuratu zuenean.

Musikak hartuko du Garagartzza



Mendaroko lagun talde batek Gararock musika jaialdia antolatu du biharko. Munlet Mendaroko musika taldeak disko berria kaleratu du, eta estreinakoz euren herrian aurkeztuko dute diskoa. Munleten azken lanaren aurkezpena aitzakia hartuta antolatu dute Gararock. Garagartzan izango da jaialdia, 18:30etik aurrera. Arratsaldeko emanaldiak aire librean egingo dituzte, eliza aurreko parkean eta gabeako saioak, berriz, San Agustin kulturgunean.

- AINHOA ANDONEGI -

Mendaroko kultur eskaintza aberastu eta, bereziki, musikari bultzada eman nahi izan dio herriko lagun talde batek. Munlet taldeak disko berria atera duela aprobetxatuta, polita iruditu zitzairen disko horren aurkezpena herrian bertan egitea, eta hori janzteko, Gararock musika jaialdia antolatu dute. Musikazaleak eta musikan adituak batu dira jaialdia antolatzeko. Musika kontzertuetara joatea gustuko izan dute beti, eta iruditzen zaie gaur egungo gazteen artean ohitura hori galtzen ari dela. Horren aurrean, zerbait egin behar zutela erabaki zuten. Garai batean Trinipop eta Garagaua antolatzen ziren Mendaron,

eta haren ildotik antolatu dute Gararock. Mendaroko herriari eta herritarrei, herrian bertan musika emanaldi bereziaz gozatzeko aukera eskainiko diete. Garagartzan izango da, formato txikian, eta familia giroan. Arratsaldeko emanaldiak aire librean izango dira, Gaztelekuko terrazan eta eliza aurreko parkean. Bikustik bikotea modu akustikoan arituko da, DJ Axenek 80ko hamarkadako musika jartzen jardungo du, Art no DJ gazteak, aldiz, gaur egungo musikari egingo dio lekua, eta umeak ere rock mundura gerturatzeko, haientzako tailerrak prestatu dituzte.

Afalordurako bakoitzak bere ogitartekoa eskatu eta hantxe

afalduko dute, denek elkarrekin. Eta 22:00etatik aurrera, jaiak Sanagustin Kulturgunean jarraituko du. Munletek *Chupacabras* diskoa aurkeztuko du, eta Mendaroko taldearen ostean, Vulk Bilboko musika taldearen saioa izango da.

Antolatzaileak pozik daude osatu duten kartelarekin. Udalak diruz lagundu duen arren, aurrekontu xumea dauka jaialdiak, eta eskerrak eman nahi dizkiete parte hartuko duten taldeei, erakutsi duten borondate eta prestutasunagatik. Jaialdiaren soinu arduraduna Ander Mujika elgoibartarra izango da, eta horrek "kalitatea ziurtatzen duela" azaldu dute arduradunek.

Adin tarte diferenteetako jendea espero dute, eta jaiak ondo irteten bada, horrelako ekimen gehiago antolatuko duen jendea aurkitzea nahiko lukete. Nolabait esateko, Mendaroko kultur eskaintza zabaldu eta aberasteko abiapuntua izatera dator Gararock.

Egitaraua

24 ZAPATUA

18:30 Bikustik + Creedence clearwater revival tribute band.

Ondoren, txikientxako rock tailerra eta DJ Axen

22:30 Munlet

Segidan, Vulk

Ondoren, DJ Arno.

Ina Iriondo Her Proffessor MUNLET

Munlet bikoteak 2003an hasi zuen musika ibilbidea, eta ordutik lau disko atera dituzte. Azken lanari *Chupacabras* jarri diote izena, eta bihar aurkeztuko dute, Gararock jaialdian. Ina Iriondo 'Her Proffesor' eta Anita Perez 'Lady Fingers' dira bikoteko kideak, baina azken lan honetan *Cebri* mendarorra ere batu zaie.

♦ **'Chupacabras' diskoa aurkeztuko duzue bihar Mendaron, zuen herrian. Zer sentitzen duzue?** Pozik gaude, egia esanda. Mendarotik, eta, oro har, Euskal Herritik kanpora jarraitzaile gehiago izan ditugu. Hiri handietako musika da gurea, eta hartzaileak punki, gotiko, homosexual edota tribu urbanoak izan dira gehienbat. Mendaro herri txikia da, eta uste dut ikusi gaituztela pixkat 'bitxo raro' bezala, nahiz eta gu oso normalak izan. Azken lan ho-

"Azken disko hau kontsumitzeko aurrekoak baino errazagoa dela esango nuke"

netan *Cebri* mendarorra batu zaigu taldera, eta hori ere izan da diskoa herrian aurkezteko arrazoia. *Cebri* oso ezaguna eta popularra da Mendaron, eta une aproposa iruditu zaigu *Chupacabras* Mendaron aurkezteko.

♦ **Zer aurkituko dugu disko honetan?** Soinuak ez da hain elektronikoa; apur bat elektrikoagoa da. Eta kantak errazagoak dira entzuteko. Kanta asko daude, baina motzak. Abesti guztiak guk egindakoak dira. Azken kantua, *Divina of the dead*, Yogurina Borobari egin genion, eta orain gure bertsoak egin dugu. Esango nuke azken disko

hau kontsumitzeko aurrekoak baino errazagoa dela.

♦ **Diskoari laguntzeko bideoklipa ere egin duzue.** Bai, Mendaron bertan grabatu dugu gainera. Irudiak denak aire librekoak dira, eta gero muntaia guk geuk egin dugu. Ikutu satanikoa dauka apur bat; beldurrezko pelikula txiki bat modukoa da.

♦ **Musikatik bizi zarete profesionalki?**

Ez, garai batean profesionalki hartu genuen Munlet, baina orain ume bat daukagu eta biok lanean ari garenaz, Munlet afizioa da guretzat. Medio gutxi ditugu, eta Internetez zabaltzen dugu bereziki gure musika. Kontzertuak ere lehen baino gutxiago eskaintzen ditugu. Bermeon, Donostian eta Gasteizen joko dugu momentuz. Gure diskoa Internetez erosi daiteke, eta Mendaroko Morroskilo dendan ere jarriko dugu salgai.





Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112

Lan haundixa egin dozu Angelo; gurekin familixan, txikittatik han eta hemen kantuan, eskuetan orrazixak zein mikrofonua hartuta, jende aurrian beti, plazan zein eszenarixo gaiñian, mendi giruan askotan eta beharra izan daben guztien albuhan. Plazerra izan da bizitza zure onduan, eta egin dozun lana danok edukiko dogu go-guan. Atsedean hartuizu orain zuk aitta, guk gordeko zaittugu bihotz barruan eta jarraituko dogu erakutsi diguzun moduan.



Juan Angel Iriondo Kortabitarte *"Angelo"*

2016ko abuztuaren 8xan hil zen, 80 urte zituela
Zure familixakuak



Juana Sanchez Perez

2016ko irailaren 16an hil zen, 77 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Pedro Txurruka Arrieta

2016ko irailaren 20an hil zen.

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***

Sagarragako familia



URRIAK 1, LARUNBATA

STOCK FERIA

2019

MAALA PARKEA
ELGOIBAR

10:00 ETATIK

14:30 ERA

14:00etan

Zozketa 600€*

* Saria eskuratu ahal izateko, saritutako txartela Maala parkean egon beharko da zozketa unean.



Laguntzailea


elgoibar
600-600.000

Babeslea



Bizikletak, euskara, artea, feminismoa eta mugikortasuna uztartuko ditu Unai Villenaren proiektu berriak

Gipuzkoako Foru Aldundiak META! deialdiaren barruan bultzatuko dituen 20 kultur proiektuak aurkeztu zituen joan den asteko ostiralean. Horien artean, Unai Villena elgoibartarrak, Elgoibarren bizi den Asier Olabarrieta bilbotarrak eta Aitor Gomez andoaindarrak proposatutako Biziki izeneko proiektua dago. Proiektuaren bitartez bizikletak euskarekin, artearekin, feminismoarekin eta mugikortasunarekin duen harremanaz hausnartu nahi dute, ondoren irudiak hitz eta soinuekin nahastuz hogeit hamar obra sortzeko. Urriaren 24ra arte iraungo duen *crowdfunding* kanpainari ekin diote laguntzak batzeko eta, jendeak emandako euro bakoitzeko beste bat jasoko dute Foru Aldunditik diru-laguntza gisa, epearen barruan proiektua garatzeko finkatu duten gutxieneko kopuru jakin batera iristen badira. Proiektua diruz laguntzen duten pertsonen sariak jasoko dituzte trukean, eta beste hainbat modutan parte hartzeko aukera ere badago. Kanpainak iraun bitartean proiektuari buruzko xehetasunak aletzen joango dira facebook



(<https://www.facebook.com/hiriaskoberebaitan/>) eta twitter (<https://twitter.com/hiriasko>) sare sozialetan, eta #BIZIKI trarelarekin igoko dituzte bertara aurretik sortu dituzten argazkiak, bideoak, testuak eta saretik arrantzatutako bestelako materiala. Informazio guztia hemen: <https://eu.goteo.org/project/biziki>

Matricula egiteko epea zabalik dago AEK euskaltegian

AEK euskaltegiak hainbat euskara ikastaro antolatu ditu ikasturte honetarako. Euskaraz ezer ez dakitenentzat edo gutxi jakinda gehiago ikasi nahi dutenentzako ikastaroak izango dira batetik, eta bestetik, administraziorako, irakaskuntzarako eta Osakidetzarako tituluak eta HABEren A1, A2, 1, 2 eta 3. mailak prestatzeko eskolak, edo EGA titulua aterako ikastaroak. Gurasoek, langabetuek eta ikasleek matricula erdia ordainduko dute, eta dagozkien baldintzak betetzen dituztenei beka sistema aplikatuko zaie Udalaren diru-laguntzari esker. Informazioa jaso edo izena emateko aukera irailaren 27ra arte egongo da, AEK euskaltegian: Gabriel Kurutzelaegi 10ean, 607 601 423 telefonora deituta edo elgoibar@aekeus helbidean.

2017ko egutegia osatzeko argazki lehiaketan parte hartzeko epea urriaren 14an amaituko da

Elgoibarko Udalak, Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan, 2017ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa jarri du martxan, eta urriaren 14ra arte egongo da parte hartzeko aukera. Elgoibarko eraikinen fatxadak, leihoak, balkoiak, atek... irudikatzen dituzten argazkiak izango dira 2017ko egutegia osatuko dutenak. Beraz, ez dira onartuko gai hori jasotzen ez dutenak, ezta koka-penari buruzko informaziorik ematen ez dutenak ere. Pertsona bakoitzak gehienez ere, 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu, betiere, originalak eta formatu horizonta-

lean ateratakoak. Lanen gutxieneko erresoluzioa 300 ppp izango da. Materialak digitalak izan beharko dira, koloretakoak nahiz zuri-beltzekoak.

16 urtetik gorakoek hartu dezakete parte, eta ezinbestekoa izango da Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egitea.

Lanak aurkezteko bi aukera daude: CDa Kultur Etxeko Euskara Sailean entregatu edota posta elektronikoz helbide honetara bildalita: euskara@elgoibar.eus

Elgoibarko Udaleko bi ordezkari eta Ongarri argazkilari elkarteko beste bik hamabi argazki aukeratuko dituzte egute-



gian jartzeko, eta 70 euroekin sarituko dute aukeratutako argazki bakoitza. Informazio guztia www.elgoibar.eus webgunean aurkitu daiteke.

'Bizi baratzea' hitzaldia eskainiko du Jakoba Errekondok eguaztenean



Elgoibarko Izarrak duen *Kulturekintza* programaren barruan, irailaren 28an Jakoba Errekondo (Usurbil, 1961) etorriko da Elgoibarrera, *Bizi baratzea* hitzaldia ematera. *Bizi baratzea* da Jakobak idatzitako azken liburuaren izenburua, eta horren aurkezpena egingo du. Baina, batez ere, jendearen galderei erantzun eta zalantzak argitzeko erabiliko du hitzaldia. Bestek beste, baratziari, lorategiari, etxe barruko landareei, fruta-arbolei, eta basoari lotutako galderei eta zalantzei erantzuteko saioa izango da Jakoba Errekondorena. Kultur Etxeko hitzaldi gelan egingo du saioa, 18:00etatik aurrera. Hitzaldia Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udaleko Ekonomia Sustatzeko sailak antolatu dute elkarlanean, Udalak finantzatuta.

Helduentzako dantza ikastaroak antolatu ditu Biraka Dantza taldeak



Biraka Dantza taldeak helduentzako ballet eta dantza ikastaroa antolatu du ikasturte berriko. Urritik maiatzera izango da, martitzen eta eguenean, Kiroldegian. Ordutegiari dagokionez, bi aukera eman dituzte: 11:00etatik 12:00etara edo 15:00etatik 16:00etara. Taldea osatzeko, gutxienez sei lagun behar dira. Interesatuak 669 558 381 (Eva) zenbakira deitu dezakete.



Inoren Ero Ni taldearen kontzertua gaur, sotoan

Sinuosek antolatuta, atzo hasi ziren aurtengo Sotoko Hotsak musika emanaldiak, eta gaur izango da bigarren kontzertua. Inoren Ero Ni talde andoaindarrak joko du gaur Kultur Etxeko sotoan, 23:00etatik aurrera. Rock estiloan, baino hardcore musika doinuak egiten ditu taldeak. 2002an sortutako taldea da, eta ordutik lau disko kale-ratu ditu.

Altzariak zaharberritzeko ikastaroa

Altzariak zaharberritzeko eta birziklatzeko ikastaroa antolatu du Eskuz arte eskolak. Martitzen eta eguenean izango dira eskolak, eta bi ordutegi jarri dituzte aukeran: 15:00etatik 17:00etara edo 18:00etatik 20:00etara. Interesatuak telefono honetara deitu dezakete: 615 764 337 (Nieves).

Artisau azokan izena emateko epea zabalik

Urriaren 22an izango da Elgoibarko artisauen azoka, eta dagoe-neko zabalik dago bertan parte hartzeko epea. 10:30etik 14:00etara izango da, Maalako parkean. Informazio gehiagorako Kultura Sailera deitu behar da: 943 742 158.

Iban Murua eta Iñigo Lariz Euskal Herriko Bertikalen Txapelketako podiumean



Iban Murua eta Iñigo Lariz elgoibartarrek bigarren eta hirugarren egin zuten Uharte Arakil-Berriain Km. Bertikalaren 8. edizioan, Euskal Herriko Bertikalen Txapelketako proban. Iban Muruaren entrenatzaile Aitor Osa itziartarrak irabazi zuen proba, 40 minutu eta 30 segundoko denbora eginda. Aurreko bi edizioak irabazi ostean, 43 urteko itziartarrak aitortu zuen aurtengoan ez zuela proba irabazterik espero. Bere berbetan, Iban Murua elgoibartarra zen proba irabazteko faborito argia. "Nik prestatzen dut Iban, banekien oso fuerte zegoela eta paretsu ibiliko ginela. Niretzat sorpresa izan da irabaztea, Iban aurten dena irabazten ari delako eta primeran dabilelako". Murua ez zen gaizki aritu, baina "nahi eta uste" zuen lasterketa ere ez zuen egin, eta maisuak baino 35 segundo gehiago behar izan zituen igoera (5 kilometro eta 1.023 metroko desnibela) osatzeko, 41 minutu eta bost segundo, alegia. Iñigo Lariz elgoibartarra sailkatu zen hirugarren postuan, 42:59ko denborarekin.

Aurten ez da egingo Debabarreneko BTT Martxa

Debabarrenako BTT Zentroak atekak itxi ditu, denboraldi baterako, berrazterketa bati ekin eta produktuari bultzada berria emateko asmoz. Itxiera horren ondorioz, antolatzaileek jakinarazi dute aurten ez dela egingo Debabarrenako BTT martxa-rik. Iaz, zazpigarren edizioan, 323 mendi bizikleta zalek hartu zuten parte.



Sallobentera bi errobera gainean egin zuten joan-etorria 200 lagun inguruk

Euriaren beldur baziren ere, ateri eutsi zion eguraldiak Elgoibar Bi Erroberetan irteeran, eta hala, parte hartu zuten 220 umeek eta nagusiek busti gabe eta bestelako arazorik gabe egin ahal izan zuten Sallobente-Ermuaraneraino joan-etorria bizikletaz, joan den domekan. Elgoibar Bi Erroberetan ekimenaren 12. edizioa antolatu du aurten Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak. Distantzia laburretan bizikleta gehiago erabiltzera animatzeko helburuarekin antolatzen dute eta baita bide gorri sarea zabaltzeko eta bizikletan ibiltzeko erraztasunak jartzeko eskatzeko ere.



San Bartolome elizatik plazara tirolina ikusgarria Debabarrena Raidean



Zapatuan (irailak 24) jokatuko da Debabarreneko orientazio raidaren bigarren edizioa, eta antolatzaileek ibilbideari eta proba bereziei buruzko xehetasunen berri eman dute. Proba berezi horietako batean, esaterako, San Bartolome elizan gora eskalatu beharko dute parte hartzaileek, eta gora ailegatutakoan, tirolina bidez, berriro ere Kalegoen plazara jaitsiko dira. Proba hori goizez, 10:00etatik 12:00etara izango da eta 15:00etatik 17:00etara arratsaldean. Hortaz, ikusleek gertutik jarraitzeko modua edukiko dute. Hainbat kirol proba uztartzen dituen iraupen luzeako orientazio proba da raida, eta Elgoibarko Iparraldeko Raid Abentura Ligarako (LINRA) puntuagarria izango da. Raida 10:00etan hasiko da, Kalegoen plazan, eta 17:00etan bukatuko da.

Sasoi berriko lehen mendi irteera, Debatik Kalbariora

Ikasturte berriarekin batera, Morkaiko Mendizale Elkartek eta herriko ikastetxeek elkarlanean antolatzen dituzten mendi irteerak martxan dira. Lehenengoa Debatik irten eta Mutrikuko Kalbarioko ermitara artekoa izango da, domekan (irailak 25). Trenez joango dira Debara, 9:20ko trenean.



Gau krosa jokatuko dute bihar Elgoibarko kaleetan

Mintxeta atletismo taldeak antolatuta, 7. Gau Kros herrikoa jokatuko da zapatuan (irailak 24), 20:00etan. Herriko kaleetan barrena arituko dira antxixikalariak, 7,7 kilometroko ibilbidean, Kalegoen plazan hasi eta bertan bukatuz. Aurrez izena eman ez dutenek zapatuan aukera izango dute Kalegoen plazan 17:30etik aurrera, 15 euro ordainduta. Amaieran hainbat sari zozketatuko dituzte. Iaz 168 lagunek hartu zuten parte eta Oier Ariznabarreta durangarra eta Gurutze Frades iurretarra izan ziren azkarrenak.

Emaitzak

FUTBOLA

Aretxabaleta 2 – Haundi 0 (Oho. Erreg.)
Elgoibar 1 – Zarautz 1 (1. erreg.)
Anaitasuna 1 – Elgoibar 3 (Jub. A)
Elgoibar 1 – Anaitasuna 1 (Jub. B.)
Elgoibar 1 – Anaitasuna 2 (Oho. Kad.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 24
17:00 Haundi – Touring (Oho. erreg.)
19:00 Elgoibar – Zestoa (Jub. A)
Domekia, 9
16:30 Elgoibar – Añorga (Kad.)

Futbol Eskolari buruzko bilera

Futbol eskolan izena emanda dauden umeen gurasoentzako bilera informatiboa antolatu du C.D. Elgoibarrek datorren egunerako (irailak 29). Kultur Etxean izango da, 19:00etan. Funtzionamendua azaltzeaz gainera, gurasoek izan ditzaketan kezka argituko dituzte.

Ainhoa Lendinez Sorginen Lasterketan bigarren

Axpen (Atxondo) jokatu zen IX. Sorginen Lasterketa. 17 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten lasterkariak eta Aritz Egea (1:23:36), gizonetzkoetan, eta Aitziber Ibarbia (1:50:40), emakumezkoetan izan ziren azkarrenak. Ainhoa Lendinez elgoibartarrak lasterketa aparta osatu zuen eta bigarren postuan sailkatu zen emakumezkoetan, 1:57:28ko denborarekin.



LANA.....**Eskaerak**

Geriatría laguntzailea adinekoak zaintzeko prest. Gauzez ere, ospitalean zein etxean. ☎ 660 511 817/943 742 330

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest nago. Baita sukaldari laguntzaile aritzeko ere. ☎ 616 457 254

Eskola partikularrak emango nizkieke, 6-12 urte bitarteko umeei. LH Magisteritza ikasten ari naiz, ingeleseko First titulua daukat eta dislexiari buruzko ikastaro berezi bat. ☎ 648 505 233 (Amaia)

Adinekoak zainduko nituzke. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Goizez, orduka. ☎ 647 100 572

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Formazioa eta diplomak dauzkat. ☎ 671 989 434

Portalak eta elkarteak garbitzeko prest nago. ☎ 617 571 210

Gazte euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta eskolako lanak egiten laguntzeko. Gizarte Hezkuntza diploma-tua. ☎ 688 639 371

Sukaldari laguntzaile lanetarako edo adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 620 712 478

Sukaldari laguntzaile lanetarako edo adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 677 259 560

Garbiketa lanak egiteko prest nago. El-goibartarra eta euskalduna naiz. ☎ 649 782 967

Tituludun irakasleak ingeles eskolak ematen ditu. Talde txikiak eta baita etxean ere. ☎ 680 319 002/943 744 062

Geriatría laguntzailea, adinekoak zaintzeko prest. Orduka. Paseatzeko prestutasuna. ☎ 646 931 162

Adinekoak zainduko nituzke. Interna ere bai. Esperientzia daukat. ☎ 632 253 315

Gauzez, ospitalean, gaixoak zaintzeko prest. ☎ 642 636 525

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke. Esperientzia handia daukat. ☎ 632 408 771

Garbiketa lanak egin edo umeak zaintzeko prest nago. Goizez edo eguerdian, 15:00ak arte. ☎ 617 248 087

Nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 628 738 472

Lan bila. Orduka lan egiteko prest nago. Interna eta asteburuetan ere. ☎ 631 480 376

Lan bila. Orduka lan egiteko prest nago. Interna eta asteburuetan ere. ☎ 631 212 497

Eraikuntza lanetan esperientzia duen pertsona lan bila. Baldosa, sukalde, pintura, konponketak... 20 urteko esperientzia daukat. ☎ 634 245 882

Lan bila nabil. Sukaldari laguntzaile, garbiketa lanetan edota umeak zein nagusiak zainduz. Orduka. ☎ 602 047 812

Etxeak eta portalak garbitzeko, pertsona nagusiak zaintzeko eta asteburuetan lan

egiteko prest nago. ☎ 699 609 190

Edozein lan egiteko prest nago. 11:00etatik 17:00etara. ☎ 632 564 679

Gabi jateak jantokirako zerbitzaria behar du. Jardun osoa. Euskalduna izatea hobetsiko da. ☎ 943 741 230

Asteburuetan pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest nago. ☎ 631 974 374

Pertsona arduratsua, esperientziaduna, erreferentzia onak dituen garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. ☎ 681 065 683

Eskaizak

Bi ume zaintzeko pertsona bat behar da. ☎ 662 066 896

LH6. mailako ikasle bati eskolako lanak egiten laguntzeko pertsona bat behar dut. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. ☎ 617 386 198

Ingeles irakasle partikularra behar da, 20 urteko gazte bati eskolak emateko. ☎ 630 410 294

Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar dugu. Zortzi orduko lan jarduna, goizez. ☎ 659 287 122 (arratsaldez deitu)

ETXEBIZITZAK.....**Alokairua**

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan El-goibarren ☎ 688 723 121

Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan. ☎ 620 712 478

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan El-goibarren. Logela bat edo bi gehienez. ☎ 631 098 995

BESTELAKOAK.....

Karakate mikologia elkarteko nire bazkide-tza partea traspasatzeko prest nago. ☎ 688 605 253

DBH4. mailako liburuak salgai. Egoera onean eta merke. ☎ 650 783 512

OSPAKIZUNAK.....

1971ko kintoen bazkaria urriaren 15ean, Mendaron. Landa jatetxean. 65 euro. 2095 5054 00 9116354473. Ordaintzeko azken eguna, urriak 11. Egunean bertan: 12:00etan Txirristakan edo 13:00etan Uztargin.

1976an jaiotako bazkaria urriaren 22an. Argazkia eta luntxa Ibai Ondo erretxian (12:30). Bazkaria Sigma jatetxean (14:30). Izen-ematea urriaren 15a baino lehen egin behar da. Sartu 60 euro Caja Ruraleko kontu honetan: 3008 0182 82 3390401416

1948an jaiotako bazkaria irailaren 24an. 12:30ean Kalegoen plazan elkartu, mokadutxo egin eta argazkia atera. Bazkaria Sigman, 14:30ean. 65 euro ingesatu Nacidos en 1948 kon-tzeptuarekin, Julian Mugicaren izenean dagoen Laboral Kutxako zenbaki honetan: 3035 0007 23 00 7113-2820



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Nire komunitatean egin dugun etxe jabeen azken bileran urte honetan presidente kargua beteko duen bizilaguna izendatu dugu. Orain arteko presidentek, ordea, ez du bilera honetako akta sinatu nahi ez baitator bat hartutako erabakiekin. Zein eragin izan dezake horrek komunitatean?

Legearen arabera akta presidentek eta idazkariak sinatu behar dute bileraren ostean edo datozen hamar egun naturaletan. Akta sinatutakoan akordioak betearazleak izango dira legeak aurkakorik esaten ez badu.

Etxejabea delako edo beste arrazoi batzuegatik hainbat akordio bere interesen aurkakoak direlako, komunitate bateko presidentek akta sinatzeari uko eginez gero, ez dut uste akten liburuan idazkariak bakarrik sinatzea eragozpena izango denik arrazoia zehaztuz gero.

Aholkua: Presidentearen sinadura falta arren akordioak baliodunak eta efikazak dira. Presidentearen sinadura bileran esan eta jasotakoak biltzen dituen dokumentua baieztatzeko baino ez da eta nire ustez etxejabeak ez ditu babesik gabe uzten. Beraz, aktan orain arteko presidentearen sinadura falta bada ere, horrek ontzat emateko baino ez du balio, beraz, betearazletzat har daiteke.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Ai-nere!** Ondo pasa zure 3. urtebetze egunean. Patxo handi bat zure familia osocarren partez.



Zorionak, **Uxue,** etxeko printzesita, gaur 8 urte bete dituzulako. Gurasoen eta bereziki Danelen partez.



1, 2, 3, 4 eta 5, esku bete atzamar. Zorionak, **Luken,** eguaztenian zure urtebetetzia izan zalako. Etxekuen partez.




Zorionak, **Manex,** astear-tian 9 urte! Baita amari ere, domekan bere eguna delako. Ondo pasa!



Zorionak, **Mar-ikel,** astelehenean 5 urte beteko dituzulako. Ama, aita eta bereziki Juneren partez.



Zorionak, **Naroa,** zure 6. urtebetetzean familia guztiaren partez muxu asko.



Zorionak, **Olatz!** Ondo pasa zure 9. urte eguna? Gaur lagunekin ospatuko duzu! Muxu bat familia-koen partez.



Zorionak, **Eider!** Irailaren 28an 9 urte beteko dituzu. Suuuper ondo pasa zure eguna. Askok maite zaitugu.



Zure urtebetetze egunean oso ondo pasa genuen! Zorionak **Paul.** Muxu potolo pila!




Zorionak, **Anartz,** abuztuaren 28an 6 urte bete zenituelako eta ongi-etorri **Ian.** Muxu handi bana familiako guztien partez.



Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€





Dmasa! KILOMETROAK 2016 - BERGARA

Urriak 2, igandea

- 🕒 Autobusa antolatu dugu Gipuzkoako ikastolen aldeko jaiari parte hartzeko.
- 🕒 Irteera: 10:30 (Sigmako aparkalekuan)
- 🕒 Itzulera: 20:00
- 🕒 Prezioa: 8 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 7 euro)
- 🕒 Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran eman behar da.

Antolazlea: Babeslea:



atzak

taberna

San Roke 28, behea
943 531 301 / 646 443 183

Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu



RPS 160/12

ELGOIBAR - DEBA

Uzuri optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com



ORBE

PERTSIANAK EGITEN DITUGU
TOLDO MOTA GUZTIETAN ADITUAK

Karabixa, 1 - Ermua
Tel.: 943 179 860

www.toldosypersianasorbe.com
persianasorbe@gmail.com

TOLDOAK ETA PERTSIANAK

LENTILLA PROGRESIBOAK



2x1

(1DAY ACUVUE MOIST
MULTIFOKALETAN
30eko KAXETAN,
URRIRA ARTE)



23 BARIXAKUA

17:30 Kiribil. Kalegoen plazan.

18:00 Hauteskunde kanpainako informazio mahaia. Podemos Elgoibar alderdia. Kalegoen plazan.

18:30-20:30 Odol-ematea. Odol-emaileen elkartearen lokalean.

19:30 Piano kontzertua. Itziar Beitia. Inazio Bereziartua Musika Eskolan.

21:30 Pikoteo tertulia. Joan Tarda (ERC) eta David Fernandez (Ezker independentista). Gidatzen: Ion Telleria (Naiz). EH Bildu. Usuan.

23:00 Kontzertua: Inoren Ero Ni. Sotoko Hotsak. Sinuose. Kultur Etxeko sotoan.

24 ZAPATUA

9:00-14:00 Hil bukaerako nekazaritza eta abeltzaintza feria. Baserriko produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

10:00-17:00 Debabarrenako II. Raida. Morkaiko M.E. Elgoibarko mendi eta kaleetan.

11:00 Txosna. Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin pintxoak. Elgoibarko Izarra. Kalebarren plazan.

11:00 Parrokiara bisita gidatua (Gaztelaniaz). San Bartolome elizako atean.

12:00 Kale kantariak. Kalebarren plazatik abiatuta.

12:00-14:00 Pizza tailerra. Kalebarren plazan.

Eguerditik arratsaldera, ganadu erakusketa. Aita Agirre plazan.

18:30 Gararock. Bikustik, Creedence

clear water revival tribute band, Mullet, Vulk, DJ Axen, DJ Art&No, txikienezako rock tailerra, dantza afrikarrak...

Mendarako Garagartza auzoan.

20:00 Gau Krosa. Mintxeta Atletismo Taldea. Kalegoen plazatik abiatuta.

27 MARTITZENA

18:00 Literatur tailerra. *Fouche*, Stefan Zweig. Dinamizatzailea: Consuelo Carrera. Antolatzailea: Haizea. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

30 BARIXAKUA

21:30 Bideo foruma: *Siete mesas de billar frances*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Haizeak antolatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

A. Garate
Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar
610 226 651

**Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarrian edo
www.barren.eus webgunean**
943 744 112
Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

Flexiahorro
%0,55

ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA 2016KO BIGARREN SEIHILEKORAKO

ERRENTAGARRITASUN ZIURTATUA SEIHILEKO NATURALEN ARABERA

LIKIDEZIA: HASIERATIK.

Lehen urtean, ateratako zenbatekoaren %2ko penalizazioa aplikatuko da.

IRAUPENA:

mugagabea, bezeroak inbertitutakoa atera, edo hil arte.

FLEXIAHORRO honako konpainia honen BIZI-ASEGURU ETA AJURREZKI bat da: CNP Partners de Seguros y Reaseguros, S.A. Grupo CNP Assurances-koa; Standard & Poor's-en, A ratinga du, akzioen %60tik gora enpresa publikoena edo Frantziako Estatuarena izanda. Bankoa bitartekaria da.



10.000 euroko Flexiahorro bat kontratatzen baduzu, honako hau oparituko dizugu: Tupperware marka ospetsuko 10 ONTZI, janaria gorde eta eramateko: 1 litroko 1 ontzi, 15,5 litroko 1 ontzi, 2 litroko 1 ontzi, 600 ml-ko 3 ontzi eta 300 ml-ko 4 ontzi.

Informazio gehiago: ELGOIBAR.
San Francisco, 1. Tel: 943 74 40 72



SAN MIGEL JAIAK

Irailak 29 eta 30 eta urriak 1 eta 2

29 EGUENA,

San Migel Eguna

11:00 Kanpai jotzea.

11:30 Meza.

Gero, Ziarda eta Mañukorta bertsolariak.

Jarraian, esku-pilota partidak.

14:30, bazkaria.

Ondoren, Elustondo anai-arrebak trikitilariak.

30 BARIXAKUA

19:00 Gazteak elkartzea. Kalamua elkartearekin.

21:00 Haritz EDTren ekitaldia Borja Uzuriagaren oroimenez.

22:30 Gazteen afaria.

Ondoren, Fan&Go taldearekin erromeria.

1 ZAPATUA

13:00 Umeentzako jolasak.

Jarraian, umeen bazkaria.

Ondoren, umeentzako parkea.

18:00 Bolo txapelketa.

21:00 Bertso afaria: Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano.

Ondoren, erromeria.

2 DOMEKA

11:30 Meza.

Jarraian, Baltzola anaiak trikitilariak.

12:00 Artzain-txakur txapelketa.

14:30 Bazkaria.

17:00 Idi demak.

Ondoren, Baltzola anaiak trikitilariak.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G 09:00 - 22:00
U 23 Barixakua YUDEGO
A 24 Zapatua ORUESAGASTI
R 24 Zapatua ETXEBERRIA (9:00-14:00)
D 25 Domeka ORUESAGASTI
I 26 Astelehena BARRENETXEA
A 27 Martitzena IBAÑEZ
K 28 Eguaztena GARITAONANDIA
 29 Eguena ETXEBERRIA
 30 Barixakua FERNANDEZ

22:00 - 00:00
 Astelehenetik domekara
 ETXEBERRIA (Elgoibar)
 Santa Ana, 1
 Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00
 IRAUNDEGI (Eibar)
 Fermin Calbeton, 19
 Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
 Garagartza (Mendaro)
 Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
 Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
 (Soraluze) Tel.: 943 751 384



BATERA

BOZKATU | PSE-EE
 PSOE





Iñigo Lamelas

Jose Luis Azpillaga



Bale, argazkia izugarri polita da: marko konparaezina Donostiako Aste Nagusiko su artifizialen gau batean. Ederra benetan, Iñigo! Baina, niri, su-festak ez zaizkit gustatzen: aspertu egiten naute, ia beti oso antzekoak dira eta.

Dena dela, nire iritzi ezkorra dezepzio baten ondorioa da batez ere. Gogoan dut lehen, txikitan, gustukoak nituela suzko erroberak, eta behin, gainera, Luis G. Berlangaren *Calabuch* filman ikusitakoarekin zeharo harrিতa geratu nintzela. Pelikula atsegin horrek Mediterraneo aldeko herri txiki batean gertatua kontatzen du. Joan den mendearen erdi aldean gizon xeble bat azaltzen da herri horretan. Herrikoek ez dakite, baina zientzialari bat da, kohete eta horrelakoetan aditua, bere herrialdeko ospe eta eginbeharretatik ihesi

dabilena. Gure zientzialari jatorra gustura dago herriko jende xehearekin. Halako batean, ordea, bertako festetako su artifizialak direla eta, kohete berezia prestatzen du aldameneko herriarekin duten lehia irabazteko. Gogoan dut nola su artifizial horien bukaera aldera herriaren izena agertu zen zeruan: Calabuch. Ni horrekin guztiz harrিতa geratu nintzen. Nola zen posible suzko letrak zeruan sortzea? Geroztik, askotan pentsatu izan dut inoiz ikusiko ote nituen letrak edo herrien izenak agertzen zeruan, baina, tamalez, hori ez da inoiz gertatu. Etsi egin beharko ote dut eta ezinezkoa dela pentsatu?

Ondo pentsatuta, ordea, agian hobe horrela. Bestela, baten batzuek edozein txorakeria suzko argiz zeruan idazteko baliatuko lituzkete eta su artifizialak: Maite zaitut! Donostia 2016! Zorionak! Urte berri on!... Imajinatzen? Puff!

*‘Niri su-festak ez zaizkit gustatzen:
aspertu egiten naute, ia beti oso antzekoak dira-eta’*

URRIAK 1, ZAPATUA

AZKUE (SAN ROKE) AUZOKO BERDEGUNEAN, ELGOIBAR

SAN Rock FESTIBALA

16:00etan, Inazio Bereziartua Musika Eskolako rock taldea

17:30ean, Belceblues

19:00etan, Jon Basaguren (Izaki Gardenak)

21:30ean, Kokein

Antolatzailea:



ELGOIBAR UDALA

Babesleak:



ELGOIBAR UDALA

KULTURAREN

elgoibar



KULTURA
PROTA



euskaltzaleen
topagunea

Logintzailea:



INAZIO BEREZIARTUA
MUSIKA
ESKOLA

Deiala:

[] Hyggelig Study
Barcelona



MAIALEN GURRUTXAGA
EUSKO LEGBILTZARRERAKO HAUTAGAIA



URKULLU
LEHENDAKARI

ERAIKI
EUSKADI



URKULLU
LEHENDAKARI

